

Mikel Zurloano

EHUKO IRAKASLEA

G-20

Londresko gailurraren ondoren lehen bezain urrun gaude krisiaren irtenbiderako *new deal* batetik. Bertan ez da munduko ekonomia orden berriturako haberik ipini. Bileraren ondoko mezu triunfalistak zerikusia du igurikapen grisaren ostean ustekabeko neurriak onartzearekin. Baina neurri hauen oinarrian ez da aro berri baterako izpirik ikusten, ez helburu eta estrategia aldaketari dagokionean, ezta ere proposatzen diren tresna eta instituzioen izaeran. Hasteko, krisiaren inguruko diagnostiko bateratu baten gabezia da nabarmena, krisia orokorra eta sistemikoa dena bistakoa den arren ez da hori onartzen.

Kontestu horretan neurri partzialak eta zalantzasak bideratzen dira, betekizun mailan exijentziarik gabekoa. Finantza Egonkortasunerako Kontseilua eta Nazioarteko Diru Funtsa bezalako erakunde fosilizatuak finantza sistemaren erdian ipintzea bide honen ezintasunaren ispilu baino ez da. Merkataritza babesaren aurkako lerroa ere ez da sinesgarria, noiz eta G-20 taldeko herrialdeek beraiek 47 neurri protekzionista indarrean ipini duten aldirian. Paradisu fiskalen zerrenda beltza argitaratzeak ez dirudi oso eraginkorra izango denik zigor neurriak zehaztu gabe, non eta Britainia Handian eta Amerikako Estatu Batuetan (AEB) bertan indarrean daudenak ezabatzen ez diren bitartean. Eta zer esan *hedge*



DANI BLANCO

funtsak arautzeko neurriez eta arriskuen estimaziorako agentziak kontrolatzeaz? Hau guztia nork eta nola egingo duen ez da argitzen. Nolanahi ere, finantza burbuilak desagertzeko bidea seriozki urratzeko aukera bakarria aktibo hauek debekatzea litzateke.

Funtsean arazoa ez da likidezia edo nahitaezkoa izan arren— finantza sistemaren erregulazioa, auzia mundu mailan dagoen zor metatu ikaragarria nork ordainduko duen ebaztean datza une honetan. Burbuila neoliberal erraldoia amaitu egin da. Kreditu emaleek —finantza erakunde eta herrialde batzuk— badakite hori eta metatutako zor guztia ezin dela kitatu, baina zorpetuen ekimenak trabatzen dituzte ahal duten heinean, dolarrak egiteko makinari eraginez jarraitzen duen AEBrenak ezik.

Orobat, bilera horren bueltan egiazta daitekeen berrikuntza sustantibo bakarria munduko gobernantzarekin dago lotuta, bertako gidari funtzioa G-20 taldeak G-7 ordezkatzarekin alegia. Herrialde emerjente batzuk munduko buru ekonomikoan egotea ez da nolana hiko aldaketa, batez ere AEBetako posizio hegemonikoan duen eraginagatik.

Halere, asmo hau urrun dago munduko ekonomiararen gobernantza demokratikoa eta multilateralaren proiektutik. Finean munduko gobernantzaren nolakoak krisiaren zama nork ordainduko duen determinatuko du. ■

«
Arazoa ez da finantza sistemaren erregulazioa, auzia mundu mailako zor metatu ikaragarria nork ordainduko duen ebaztean datza
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Galdutakoen etxean sortuak garenok, ez dugu izan lasaitasun handirik gure bizitzan. Haur denboran, erdal eskoletan heziak euskara genuen etxeko espartinak bezain mugatua, ataritik hara erabilgaitza. Eta *cashero* deitzea ez bagenuen gustuko, iraintzea baitzuten deitzaileek xede, hobe genuen ezkutuan atxikitzea, eta gure etxeko euskaltasuna ukatzea. Modernoak izan nahi bagenuen, eskolako hizkuntza erabiltzeaz gain gure euskal azentua ere ezkututzen ikasi behar genuen, berak salatzen baikintuen. Eta denboraz lortu egin genuen, euskara galtzeraino. Gaztetan bazterrera utzitakoa

Gerra

berreskuratzen aski lan izan genuen. Honek berak borrokara eramanez gintuen. Etxerat-ek Germanian burutu martxak gogora ekarri dit aspaldiko egoera hura, arazoa izan ez duenak nekez ulertu lezakeen egoera hura. Maiz dut preso senideren batekin mintzatze-ko aukera. Ez da xamurra. Eta tartean, bi preso dituen norbaitekin egoten naiz. Asteburu oro hara edo hona. Aldiro mila kilometrotik gorako bidea, etxekoa ordu erdi batez ikusteko. Berak du arazoa, lagun minenarekin ere konpartiezina, nahiz eta honek ahaleginak egin babesten. Sosak eman liezaioke beroa, arazoaren zama arintzeko indarra. Ez da gutxi konkortzen ari denarentzat. ■